

IZEN-EMATEKO FITXA

Orri-markatzaile solidarioen proiektuan parte hartu nahi baduzu, bete inprimakia eta bidal izaguzu 2017ko otsailaren 20a baino lehen.

Ikastetxearen IDa

- Webgunea: www.savethechildren.es/centros-educativos
- Helbide elektronikoa: diadellibro@savethechildren.org
- Faxa: 91 552 32 72
- Telefonoa: 91 513 05 00

[Bete itzazu datu hauek, jarduera hobeto prestatu ahal izateko.]

Jardueraren koordinatzailea

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa
Postua Telefonoa

Hezitzaile parte-hartzailea

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa
Postua Telefonoa

Hezitzaile parte-hartzailea

Izen-abizenak
Helbide elektronikoa
Postua Telefonoa

Ikastetxearen datuak (adierazi datu hauetan izandako edozein aldaketa)

Izena
Helbidea PK
Herria Probintzia Telefonoa
Helbide

Parte hartuko duen ikasle kopurua (gutxi gorabehera)

Parte hartuko duten irakasleak

Materialak

Orri-markatzailearen txantiloia (izan ahalik eta zehatzenak behar dituzuen kopuruetan. Horrela, hobeto kudeatuko ditugu materialak. Materialen bat behar ez baduzue, ipini zero dagokion koadrotxoan.)
Diplomak
Familiatzako liburuxkak

Zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan 91 513 05 00 telefonoaren bidez

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten zaizu datu pertsonalak Save the Children Fundazioaren jabetzako fitxategi batean bilduko direla. Fundazioaren helbidea c/ Doctor Esquerdo, 138, 2ª planta, 28007, Madrid da eta datuen xedea administratiboki kudeatzea izango da, baita jardueren solidarioei buruzko informazioa ematea ere. DBL Oren 11.1 artikulua betez, berariaz jakinarazten dizugu zure datu pertsonalen berri eman diezaikegula goian eskumena duten administrazio publikoari eta hirugarrenari, ikerketzako eta hobetzeko xedez. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, bertan behara uzteko edo uko egiteko eskubideak gauza ditzakezu idatzi bat bidalita aurrez adierazitako helbidera.

ERAIKI ISTORIO ZORIONTSUAK

Afrikako herrialde askotan, tradizioak ahoz transmititzen dira, komunitateko adineko pertsona batek zuhaitz baten gerizpean kontatutako istorioen bidez. Gertaera horrekin lotura bat sortzen da pertsonen artean, istorioen artean eta naturarekin. Baina, zer gertatzen da lehortea denean? Legendei eta tradizioei estalpea ematen dien zuhaitz hori ihartzen denean ur faltagatik. Imajina dezagun zuhaitz hori haur bat dela, zuhaitzak bezala ura behar duela bizirik irauteko, osasuntsu egoteko, hazteko.

Ura funtsezkoa da bizitzeko, baina milioika pertsonentzat ur edangarria izatea egunetik egunera zailagoa den erronka da.

Etiopia, Niger edo Burkina Faso gisako herrialdeetan bizi diren neska-mutilentzat ur edangarri eta garbia ez-izateak ondorio larriak ditu beren bizitzetan eta:



Osasuna



Elikadura



Hezkuntza



4 €-rekin

ikasten jarraitzeko materiala jasotzen du haur batek.



7 €-rekin

ur edangarria du eskolan hilabetez haur batek.



17 €-rekin

haur batek jan egiten du hilabetez eskolan.

Guztiok urezta dezakezu zuhaitz hori, ametsez, tradizioez eta kulturaz hitz egiten diguten istorioei aterpea ematen jarrai diezaien lagun dezakegu.

Haur guztiak dute bizirik irauteko, heziketa bat jasotzeko eta babestuta egoteko eskubidea. Ur edangarria badute, beren etorkizuna bermatuta dago. Zuen laguntza behar dugu beren istorioak eta bizitzak aldatzeko.

NIRE LEHEN ORRI-MARKATZAILE SOLIDARIOA



Neska-mutilen eskubideen aldeko Liburuaren Egunaren III. edizioa

Hartu parte!

MILAKA PERTSONEN ISTORIOEN AMAIERA ALDATZEN DUTEN ORRI-MARKATZAILEAK

Haur bakoitzak du bere istorioa, jaiotzen diren unetik hasten dira eraikitzen, beren bizitza izango da, askotan istorio alaiak izango dira, jolasei, lagunei, liburuei buruzkoa... baina beste askotan istorio oso latzak dira, ur-, sendagai- eta elikagai-faltak markatutakoak.

Save the Children erakundeak istorio latz horiek aldatu nahi ditugu, istorio zoriontsu bihurtzeko nahi dugun, eta horretarako zure laguntza behar dugu.



Liburuaren Eguna, egun garrantzitsua da, kultura eta irakurgaiak oparitzen ditugu eta ipuinak, istorioak eta kontakizunak lantzen ditugu, baina solidaritatea lantzeko eta Burkina Faso, Niger edo Etiopia gisako herrialdetan bizi diren milaka haurren istorioak ezagutarazteko eguna ere izan daiteke.

Liburuaren Eguna zuen eskolako haurrentzako eta familientzako orri-markatzaileak egiteko tailer baten bidez ospatzea proposatzen dizuegu. Orri-markatzaile horiek saldu egingo zaizkie familiei eta lortutako dirua urrun eta egoera latzean bizi diren milaka haurren istorio tristeak aldatzeko erabiliko dugu.

Nire lehen orri-markatzailea heziketa-proiektua solidarioa eta sormenezkoa da, gaztettoen balioen heziketa lantzen du doako materialen bidez eta heziketa-komunitate osoaren solidaritatea bultzatzen du modu erraz batean.

Laguntzaileak:



NOLA LANTZEN DA NIRE LEHEN ORRI-MARKATZAILEA

Ikastetxeak doan jasoko ditu jarduera egiteko materialak:

- Ikasle bakoitzarentzat lau orri-markatzaile dituen txantilo bat banatuko da eta, orri-markatzaile horien aldeetako bat hutsik egongo da sortu, marraztu, idatzi edo beren dohain guztiak garatzeko, neska-mutil ahulenei laguntzeko, beren familiaren laguntzaz.
- Familientzat jarduera eta bere helburuak azaltzen dituen informazio-liburuxka bat jasoko duzue.
- Neska-mutilek diploma bat jasoko dute. Beren sormena, ahalegina eta solidaritatea eskertu behar dira.
- Orri-markatzaile solidarioekin batera material didaktikoa banatzen da baloreetan oinarrituta hezteko lana osatzeko eta zuen Liburuaren Eguna babesteko.



Nire lehen orri-markatzailearen bidez lantzen diren baloreak eta edukiak



Tudela de Dueroko (Valladolid) Arco Iris haur-eskolako ikasleek kontatu digute nola landu duten.

“Jardueraren azken balorazioa oso positiboa izan da. Solidaritatea, ahalegina, adiskidetasuna eta eskuzabaltasuna bezalako baloreak landu ditugu Hervéren istorioaren bidez. Irakasleok ikastetxeko heziketa-proiektuan txertatzeko ahalegina egin dugu eta, horrela, aurreikusitako edukiak lantzen jarraitu ahal izan dugu: lanbideak, formak, koloreak...”

Gainera, familien partaidetza apartekoa izan da eta neska-mutilek asko gozatu eta ikasi dute. Horixe izanik garrantzitsuena. Eta horrek guztiak gure aletxoak jartzeko balio izan badu, zer gehiago eska dezakezu.”

PARTE HARTZEKO MODUA



1. Inskribatu eskola

Inskribatu eta jaso guztiz doan Nire lehen orri-markatzaile solidarioa egiteko materiala.

2. Jaso materialak

Save the Children erakundeak ikasleentzako materiala bidaltzen du (orri-markatzaileak eta diplomak), familientzako liburuxkak eta hezitzaileentzako material didaktikoa.



3. Bihurtu Liburuaren Eguna egun hezitzailea eta solidarioa

Apirilaren 23an ospatu Liburuaren Eguna orri-markatzaileak egiteko tailer baten bidez, gonbidatu familiak ekimenarekin bat egitera eta beren txikienek neska-mutil askoren bizitza aldatuko duten orri-markatzaileak nola sortzen dituzten ezagutzera.




4. Egin bat haurren biziraupenaren aldeko borrokarekin

Eskolako haurrek apaindutako orri-markatzaileak saltzen dituzenean, milaka adin txikikoen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen diguzue. Dirua bildu ostean, ikastetxeak Save the Children-en kontuan sartuko du dirua.

5. Lagundu lehen haurtzarotik gizarte justuago bat sortzen

Eskolak eskerrak emateko diploma bat eta jardueraren emaitzen txosten bat jasoko ditu.



Inskribatzeari edo parte-hartzeari buruzko galdera gehiago izanez gero, bisitatu savethechildren.es/centros-educativos/marcapaginas-por-la-solidaridad helbidea edo deitu 91 513 05 00 telefono-zenbakira